



INDARKERIA  
MATXISTAREN  
KONTRAKO  
PROTOKOLOA

## AURKIBIDEA

|   |           |
|---|-----------|
| <b>1. SARRERA.....</b>  | <b>3</b>  |
| 1.1. Zenbait definizio .....  | 3         |
| <b>2. INDARKERIA MATXISTA GAINDITZEKO GILTZARRIAK.....</b>                            | <b>5</b>  |
| 2.1. Indarkeria matxistaren prebentzioa .....   | 5         |
| 2.1.1. Indarkeria prebenitzeko ikuspegia.....   | 5         |
| 2.1.2. Prebentzioa eta hezkuntza Bakion.....  | 5         |
| 2.2. Berdintasun Batzordea .....  | 6         |
| <b>3. INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO PROTOKOLOA.....</b>                             | <b>7</b>  |
| 3.1. Arriskuan bazaude, deitu 112ra!.....   | 7         |
| 3.2. Lesio fisiko edo psikikorik izanez gero edo halakorik duzula susmatuz gero ..... | 7         |
| 3.3. Zure kasua profesinalei jakinarazi nahi badiezu MODU KONFIDENTZIALEAN.....       | 7         |
| <b>4. INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO ERANTZUN INSTITUZIONALA.....</b>                | <b>10</b> |
| 4.1. Eraso matxista.....  | 10        |
| 4.2. Hilketak matxista.....   | 10        |

# 1. SARRERA

Indarkeria matxista sistema patriarkalaren adierazpide larriena da eta ezin uler daiteke egoera isolatu gisa, gizonezko eta emakumezkoen arteko botere erlazioei eusteko egiturazko indarkeria gisa definitzen baitugu.

Protokolo honen helburua da indarkeria matxista lehentasunezkoztat jotzea Bakion eta eremu pribatutik ateratzea, pertsona guztiei eragiten digun gizarte arazo bilakatzuz.

Kontuz ibili beharra dago bortizkeria mota hau salbuespen gisa, kasu partikular gisa edo justifikazio gisa, jorrazteko orduan; izan ere, arazoa desbideratzeko, mitoak handiagotzeko edo emakumezkoen biktimizazioa areagotzeko arriskua dugu, betiere benetako arazoa, hau da, sistema heteropatriarkala ikusezin bihurtuz.

## 1.1. Zenbait definizio

### Sistema heteropatriarkala

- Sistema soziopolitiko honetan genero maskulinoa eta heterosexualitatea gailentzen zaizkie beste generoei eta beste sexu orientazioei.
- Oinarri androzentrikoa da, gizonezkoak gauzen erdigunean eta neurrian jartzen dituen, emakumezkoen eta haien genero rolen ekarpen historikoak ezkutatzuz eta gutxietsiz.

### Indarkeria matxista

Nazio Batuek 1995ean Pekinen egindako Konferentziak honela definitzen du: *“generoan oinarritutako indarkeria ekintza guztiak, balizko edo benetako emaitza gisa kalte fisiko, sexual edo psikologikoa dutenak, haien barnean mehatxuak edo askatasunaren gabezia arbitrarioa sartuta, bizitza publikoan edo pribatuan gertatuagatik ere”*.

Haren barnean, honako bereizketak egiten dira:

- Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak men egiten dio bikotekidearen edo bikotekide ohiaren portaerari, baldin eta kalte fisikorik, sexualik edo psikologikorik eragiten badu, betiere kalteon barnean eraso fisikoa, bortxa sexuala, tratu txar psikologikoa edota kontrol jokabideak sartuz.
- Indarkeria sexuala ekintza sexual bat da edo ekintza sexuala izateko ahalegina edo pertsona baten sexualitatearen kontra zuzendutako edozein ekintza, baldin eta edozein eremutan bortxaz egiten bada eta betiere biktimarekiko erlazioa bazter utziz. Bortxaketa indarkeria sexual mota bat da.
- Familiaren barneko indarkeria: elkarbizitza unitateko edozein kidek emakumezkoen kontra gauzatutakoa.

| INDARKERIA MOTAK |  |
|------------------|--|
| Mota             | Deskripzioa  |
| Psikologikoa     | Emakumezkoa gutxiesteko xedea duten jokabide guztiak: mehatxuak, emakumezkoaren erruduntasun sentimenduak areagotzea, irainak, kontrola, debekuak, deskalifikazio publikoak... |

|            |   |
|------------|---|
| Sinbolikoa | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumezkoak gutxiesten dituzten jarrerak eta mezuak, emakumezkoaren kosifikazioa, komunikabideek edo botere guneek zabaltzen dituzten mezu diskriminatzaileak..</li> <li>- Menderakuntza, desberdintasun eta diskriminazio erlazioak transmititzen edota erreproduzitzen dituzten mezuak, ikonoak edo ikurrak, gizartean emakumezkoen kontrako menderakuntza eta indarkeria arrunt bihurtzen edo justifikatzen dituztenak.</li> </ul> |
| Fisikoa    | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eraso fisikoa emakumezko bat (fisikoki) zauritzera zuzendutako ekintza bat da.</li> <li>- Nahita pertsona jasotzailearen osotasun fisikoa kaltetzen edota arriskuan jartzen duen edozein ekintza.</li> </ul>   |
| Sexuala    | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumezkoaren borondatearen kontrako sexu erlazioak inposatzea.</li> <li>- <b>Behartutako intimitate sexuala izatera behartzeko ekintza oro.</b></li> </ul>   |
| Ekonomikoa | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Menderakuntza edo nagusitasun ekonomikoaz eta antzekoez aprobetxatzea.</li> <li>- <b>Biktimaren bizitzaren alderdi eta erabakiak kontrolatzera zuzendutako ekintza guztiak, baliabide ekonomikoak eta materialak kontrolatuz.</b></li> </ul>   |
| Soziala    | Adiskideengandik, familiarengandik... isolatzeko jokabideak.  |

## 2. INDARKERIA MATXISTA GAINDITZEKO GILTZARRIAK

Indarkeria matxistaren kontrako borrokak neurri eta erantzun integralak behar ditu. Irtenbidearen oinarria erlazioen sistema berria asmatzean datza, gaur egungo gizarte egitura eraldatzeko.

Gizarte arloko aldaketak aldarrikatzeaz gain, prebentzioaren eta heziketaren alde lan egin behar da, sistema heteropatriarkalak emakumezkoen eta gizonezkoen artean ezartzen dituen botere erlazioak aldatzeko. Gainera, maskulinitate hegemonikoaren patroia eraldatzeaz mintzatzen ari gara, gizonezkoa izateko molde alternatiboak aldarrikatuz.

### 2.1. Indarkeria matxistaren prebentzioa

#### 2.1.1. Indarkeria prebenitzeko ikuspegia<sup>1</sup>

Emakumezkoen kontrako indarkeriaren arrazoiak genero diskriminazioan daude, arau sozialetan eta bereizkeria hori iraunarazten duten estereotipoetan. Indarkeria mota honek emakumezkoen eragiten dizkien efektu suntsitzailak aintzat hartuz, gehienbat ahaleginak egin dira halako bortizkeriatik bizirik irtendakoei zuzenduta. Dena dela, genero indarkeriari aurre egiteko erarik egokiena da hura prebenitzea, haren jatorria eta egiturazko oinarriak tratatuz.

Prebentzioa bizitzaren lehendabiziko etapetan hasi behar da, neska-mutilen heziketa landuz genero berdintasuna eta begirunezko harremanak bultzatuko dituen ikuspegiaren bidez. Gazteekin aurrera eraman beharreko lana aukerarik onena da aurrerapen azkar eta iraunkorra lor dadin genero indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko lanean. Politika eta esku-hartze publikoek bizitzaren aro hori aintzat hartzen ez badute ere, berebiziko garrantzia duen aroa da, garai horretan genero berdintasunari buruzko balioak eta arauak finkatzen baitira.

Prebentzioak berekin dakar *Emakumezkoaren Izaera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen* 57. bilkuran hitzartutako ondorioak ezarri beharra; **izan ere, ondorio horietan prebentzioa azpimarratu zen bereziki eta genero berdintasuna, emakumezkoen ahalduntzea eta giza eskubideen gozamina bultzatzeko aholkatu.** Era berean, neskentzat eta emakumezkoentzat etxea eta eremu publikoak seguruagoak izatea lortu behar da, bai eta emakumezkoen autonomia ekonomikoa eta erabakimena bideratzea eta emakumezkoen partaidetza eta erabakitzearen duten ahalmena handitzea ere, bai bizitza publikoan eta politikoan. Gizonezko eta mutilekiko lanak laguntzen du prebentzio arloko aurrerapena azkartzen eta emakumezkoen eta nesken kontrako bortizkeria desagerrarazten. Gizonezkoak has daitezke sakon sustraiturik dauden eta kontrola eta boterea iraunarazten duten arau sozialak eta desberdintasunak zalantzan jartzen, arau sozial horiek sendotzen baitute emakumezkoen eta nesken kontrako indarkeriaranzko tolerantzia.

Era berean, garrantzi handikoa da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunerako VI. plana ere aipatzea, Emakundek egin eta 2013an aurkeztutakoa.

#### 2.1.2. Prebentzioa eta hezkuntza Bakion

Protokolo hau diseinatzeko, 2015-2016an Bakion honako programa hau garatu da: “Berdintasunean hezten”. Programa horrek lagundu digu gure gizarteak berdintasunaren arloan dituen ahuleziak identifikatzen. Tailerren, hitzaldien eta bestelako jardueren bidez zenbait kontzeptu landu ditugu arlo desberdinetako pertsonekin. Hauexek dira gure ustetan landu behar ditugun eremuak:

1) **Eskola komunitatea:** hiru eremutan lan egiten da:

- Eskolako umeak.

<sup>1</sup>Iturria: [www.unwomen.org](http://www.unwomen.org)

- Irakasleak.
  - Ikasleen gurasoak edota tutoreak.
- 2) **Udalerriko kultur eta kirol elkarteak.**
  - 3) **Gazteak:** berrikuntza gisa gazteen talde batekin lanean hasi gara, problematika gizarteratzeko eta berdintasuna lantzeko.
  - 4) **Herriko dendak eta ostalaritza.**
  - 5) **Herria:** elkarteetan parte hartzen ez duten herritarrak. Pertsona guztiei zuzendutako jarduerak eta lana.

Oro har indarkeria matxistaren eta eraso sexualaren eta fisikoaren kontrako sentsibiltatea dagoen arren, prestakuntza eta kontzientziazioa landu behar izan d. Oinarrizko kontzeptuen eta indarkeria normalizatuaren inguruan lan egin behar da. Izan ere, indarkeria normalizatua ulertu behar da ikusten ez diren jarrera matxisten gisa; gaur egun horiei mikromatxismo irizten zaie.

Behin akatsak identifikatuta, hezkuntza eta prebentziorako lan programa bat prestatu beharra dago. Lan hori Bakion 2016-2017ko ikasturtean sortuko den Berdintasun Batzordeari emango zaio.

## 2.2. Berdintasun Batzordea

Berdintasun Batzordea sortuko da; haren barnean, korporazioaz gain, udalerriko erreferentziazko pertsonak eta elkarteak bilduko dira. Helburua izango da herrian berdintasuna lantzea herritik bertatik, taldean udala, erreferentziazko pertsonak nahiz elkarteak integratuz.

Batzorde horrek bere funtzionamendu dekalogoia izango du, eta bertan parte hartzen duten pertsonen artean garatuko da.

Berdintasun Batzordearen helburuak honakoak izango dira:

- Erakunde lanean berdintasuna aplikatzen dela bermatzea.
- Gizartea berdintasunaren alde hezteko lan egitea, xede horri begira programak eta jarduerak aurrera eramanez.
- Indarkeria matxista prebenitzea. Indarkeria matxista modu integralean ulertuz.

### 3. INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO PROTOKOLOA.

Zer egin behar dut indarkeria horren biktima banaiz?

#### 3.1. Arriskuan egonez gero, deitu 112ra!

Ertzaintza berehalakoan bertaratuko da eta zure kasuari dagozkion babes neurriak jarriko ditu martxan. Entzumen edo mintzamenezko ezgaitasunik izanez gero, SMS bat bidali 600 123 112 telefonora, datuak eta kokapena jarriz eta “genero indarkeria” adieraziz.

- Kasu larrietan artatuko zaituzte.
- Salaketak jasotzen ditu eguneko 24 orduetan.
- Nahi baduzu, abokatu bati deituko dio salaketa jarri aurretik eta ondoren orienta zaitzan eta babes aginduaren eskaeraren gaineko argibideak emateko; zeintzuk diren zigor neurriak (espetxe prebentiboa, urruntzeko agindua, komunikaziorako debekua eta abar) eta zeintzuk behin-behineko neurri zibilak (familiaren etxebizitzaren erabilera, zaintza eta seme-alaben bisita erregimena, elikagaien pentsioa eta abar).
- Nahi izanez gero, beharrezko gizarte zerbitzuekin jarriko da harremanetan, batez ere presazko alojamendua behar izanez gero.
- Jarraipen pertsonalizatua eskainiko dizu babes neurriak egokienak hartuz, arrisku mailaren arabera.
- Telefono mugikorra eskainiko dizu (Bortxa), arriskurik ikusiz gero, erreferentziatzko ertzain batekin zuzenean jar zaitezten harremanetan edo 24 orduko arreta telefonikoko zerbitzu espezializatuarekin. Gainera, mugikor horrek GPS zerbitzua izango du, kokapena hobea izan dadin.

Kasu guztietan, salaketa bat jartzeko orduan, komenigarria da aholkularitza espezializatua izatea. Gogoan izan doako aholkularitza jasotzeko eskubidea duzula. Aholkularitza hori ofiziozko txandako abokatu batek emango du.

#### 3.2. Lesio fisiko edo psikikorik izanez gero edo halakorik duzula susmatuz gero

Lesio fisikorik izanez gero, bai eraso fisikorik bai eraso edo abusu sexualik, edo lesio psikikorik edo antzekorik izan dezakezula pentsatuz gero, bertaratu OSASUN ZENTRO batera eta azaldu zein den lesio horien jatorria. Bakarrik joan nahi ez baduzu, udaltzaingoak, Ertzaintzak edo gizarte zerbitzuek lagundu ahalko dizute.

Gogoratu bortxatua izanez gero ezinbestekoa dela arropa ez aldatzea, ez garbitzea, ez jatea eta ez edatea, funtsezko probarik ezaba ez dadin.

- Eskatu medikuaren txostenaren kopia emateko: epaiketarako erabili ahalko dizu salaketarik egonez gero.
- Hortik lesioen txostena beharrezko epaitegiari helaraziko diote.
- Beharrezkoa izanez gero, harremanetan jarriko zaituzte gizarte zerbitzuekin.
- Zure segurtasun fisikoa arriskuan egonez gero, Ertzaintzaren presentzia eskatuko da.

#### 3.3. Zure kasua profesionali jakinarazi nahi badiezu MODU KONFIDENTZIALEAN

Zalantzak badituzu gertatzen zaizunari buruz, ea indarkeria den, edo arazoa konpontzeko alternatiben gaineko aholkularitza jaso nahi baduzu, deitu 900 840 111 telefonora (24 orduko zerbitzua).

- Berehalakoa, anonimoa, konfidentziala eta doakoa da, eta ez du arrastorik uzten telefonoaren fakturan.
- Eskuragarri dago eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.
- Profesionalek artatzen dute.
- 51 hizkuntzetan artatzen dute, bai eta entzumen edota mintzamenaren ezgaitasuna duten pertsonak ere Telesor bidez.
- Bikotekideak edo bikotekide ohiak gauzatutako genero indarkeriaren biktimak diren emakumezkoak artatzen ditu, bai eta generoko famili barruko indarkeria, jazarpen sexuala edo sexuagatiko jazarpena lanean, eraso sexualak, prostituzio behartua eta gizakion salerosketa esplotazio sexualari begira.
- Biktimak diren emakumezkoak ez ezik haien senitartekoak edo lagunak ere artatzen dituzte, bai eta informazioa edo aholkuak eskatzen dituzten profesionalak ere.
- Edozein emakumezko artatzen da, haien egoera administratiboa edozein izanagatik ere.

Halaber, hitzordua eska dezakezu Bakioko Udalaren oinarrizko gizarte zerbitzuan:

- Gertatzen zaizuna aztertzeko laguntza eta aholkularitza eta orientazioa zure bizi kalitatea hobetzeko hartu beharreko erabakiei buruz.
- Zerbitzu espezializatuagoak eskuratzeko aukera, behar izanez gero (aldi baterako ostatua, zerbitzu juridikoak, psikologikoak, gizarte eta hezkuntza arlokoak, etxebizitzakoak, enpleguak eta abar.
- Beste baliabide batzuk eskuratzeko laguntza, behar izanez gero.
- Eskura dauden eskubideen gaineko argibideak.



**Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea**  
**Mancomunidad de Servicios Sociales**

Aita Elorriaga 4, behea

48100 MUNGIA

94.615.55.51 [gizartezerbitzuak@mungialde.eus](mailto:gizartezerbitzuak@mungialde.eus)



### 3.4. Indarkeria bizi baduzu eta bakarrik sentitzen bazara edo zalantzarik baduzu, Bakio Tartekari Sarea izeneko programan sarturik dago:

Haria Elkarreak Bizkaiko Foru Aldundiaren Tartekari Sarea programaren gizarte laguntzarako agentea dauka; agente horrek borondatez entzungo du zure egoera eta premiaren araberako baliabide espezializatura bideratuko zaitu. Agente horrek ez du premiazko kasuetan jardungo, baizik eta hasieran lagunduko zaitu entzute aktiboaren bidez, erabakia hartzeko laguntzeko.

Telefonoa: 688727193

#### ERASO SEXISTA EDO SEXUALA IKUSIZ GERO:

- Hitz egin erasotutako emakumezkoarekin eta eskaini aukera guztiak.
- Galdetu ea salaketarik jarri nahi duen eta, hala bada, esan lagunduko diozula.
- Zure lekukotza garrantzitsua izan daiteke, salaketarik badago.
- Gogoratu zer egin behar den erabakiko duena erasotua dela.

## 4. INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO ERANTZUN INSTITUZIONALA

Bi kasu izan ditzakegu: eraso baten kontrako erantzuna (1) edo erailketa bat (2).

### 4.1. Eroso matxista

Udalak eraso sufritu duen emakumezkoarekin harremanetan jarriko da behar duen laguntza emateko eta jakiteko ea gizarte zerbitzuek edo bestelako erakundeek emandako arreta nahikoa den.

Galdetuko zaio ea eraso publiko egin nahi duen. Haren erabakia errespetatuko da betiere eta protokoloaren eta eman beharreko urratsen berri emango zaio.

| Bertsioa jakitera ematen da  | Bertsioa ez da jakitera ematen   |
|--|--|
| Larrialdietarako mahaia dei egingo zaio, erasoaren berri eta erasotutako emakumezkoaren egoeraren berri emateko. | Larrialdietarako mahaia dei egingo zaio, egoeraren berri emateko eta erasoari eman beharreko erantzuna abian jartzeko. |

Larrialdietarako mahaia osatuko dutenak honakoak izango dira:

- Udalaren Ongizate Batzordeko zinegotziak.
- Udalaren teknikari bat.

Mahai horrek zuzeneko komunikazioa izango du Mungialdeko Gizarte Zerbitzuekin eta Ertzaintzarekin.

- Protokoloa abian jarriko da:
  - Eraso komunikatzeko baldintzak zehaztuko dira.
  - Aparteko bilkuraren deialdiaren eguna erabakiko da; bilkura horretan gai bakarra jorratuko da: eraso matxistaren salaketa.
  - Adierazpen instituzionala idatziko da.
- Udal teknikaria harremanetan jarriko da gaia lantzen duten herriko elkarteekin, oinarrizko gizarte zerbitzuekin eta Berdintasun Batzordea osatzen duten pertsonekin, eta egoeraren berri emango dei.
- Eraso saltzeko herri mobilizazioaren eguna eta ordua adostuko dira.
- Eraso matxisten kontrako pankarta jarriko da astebetean udaletxeko balkoian.

### 4.2. Erailketa matxista Bakion

Larrialdietarako mahaia deituko zaio premiaz biltzeko; mahaia honakoek osatuko dute:

- Udalaren Ongizate Batzordeko zinegotziak.
- Udal teknikari bat.

Mahai horrek zuzeneko komunikazioa izango du Mungialdeko gizarte zerbitzuekin eta Ertzaintzarekin.

- Protokoloa abian jarriko da.
  - Erailketa nola komunikatuko den definituko da.
  - Aparteko bilkurarako deialdiaren eguna erabakiko da; bilkura horretan gai bakarra jorratuko da: eraso matxistaren salaketa.

- Adierazpen instituzionala idatziko da.
- Udal teknikaria harremanetan jarriko da arlo hau lantzen duten udalerriko elkarrekin, oinarriko gizarte zerbitzuekin eta Udaleko Berdintasun Batzordea osatzen duten pertsonekin, eta egoeraren berri emango die.
- Erailketaren gainean informatzen den egunean bertan herri mobilizaziorako deialdia egingo da.
- Eraso matxisten kontrako pankarta jarriko da udaletxeko balkoian.



Erasoa salatzea erabakitzen bada, erasotutako emakumezkoak halaxe erabaki duelako, edo erailketa matxistarik badago, Bakioko Udalak herriari jakinarazi dio, erasoaren kontra ahalik eta jenderik gehien mobilizatzeko:

- Bando bat idatziko da, herritarrei mobilizatzeko deialdia eginez.
- Prentsa ohar bat bidaliko zaie komunikabideei.
- Webgunean argitaratuko da Bakioko Udalak egoera horren aurrean hartutako jarrera.
- Webgunean argitaratutako albistea sare sozialen eta mailing baten bidez zabalduko da.